

# Kulturaren eta pobrezia-aren arteko erlazioaren inguruan **\_2016**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

# Kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioaren inguruan **2016**

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarean kontsulta daiteke lan honen  
erregistro bibliografikoa: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2016ko uztaila

© Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia - San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
Diagonal | Comunicación 360º



# Kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioaren inguruan

## 1\_Sarrera \_5

- 1.1. Etabaidaren testuingurua \_5
- 1.2. Lanaren justifikazioa \_6
- 1.3. Helburuak \_6

## 2\_Esparru teorikoa \_7

- 2.1. Pobreziaren inguruan \_7
  - 2.1.1. Pobreziarekin zerikusia duten faktoreak \_10
  - 2.1.2. Gizarte-bazterketaren dimentsioak \_11
- 2.2. Kulturaren inguruan \_12
  - 2.2.1. Kultura, gizarte eraldatzeko tresna \_13
- 2.3. Kultura-alorreko parte-hartzea eta pobrezia \_15
  - 2.3.1. Kulturaren kontsumoa eta pobrezia \_16
  - 2.3.2. Kultur ekoizpena eta pobrezia \_18
- 2.4. Iruzkun praktikoak: jarduera kulturaletan eta bizimodu kulturaletan parte hartzeko oztopoak \_20

## 3\_Pobreziaren eta kulturaren egoeraren irudia EAEn \_22

- 3.1. Pobrezia eta gizarte-bazterketa EAEn: ikuspegi orokorra \_23
  - 3.1.1. Pobreziarekin eta bazterketarekin zerikusia duten faktoreak \_23
  - 3.1.2. Pobrezia eta gizarte-bazterketa \_24
- 3.2. Pobrezia eta kultura-alorreko parte-hartzea EAEn \_26

## 4\_Laburpena \_32

## 5\_Aipatutako erreferentziak \_34

# 1\_ Sarrera

## 1.1\_ Eztatidaren testuingurua

Gizarte-desparekotasuna oso eremu ikertua izan da, eta halakoxea da oraindik ere. Gauza bera gertatzen da gizabanakoen kultura-alorreko parte-hartzearen (hau da, jarduera artistiko edo sorkuntza-jardueren kontsumo edo ekoizpenaren) azterketarekin. Elementu horien guztien (gizarte-desparekotasuna eta kultura-alorreko parte-hartzea) elkargunea, ordea, ez dute hain sarritan ikertu agerian eta enpirikoki. Ez da halaber aztertu kultura-alorreko lanpostuetara berdintasunez sartzen den ala ez.

Asko aztertu da (eta aztertzen ari da) gizabanakoen gizarte-jatorriak kulturaren kontsumoari nola eragiten dion. Noranzko bakarrean ikertu izan da batez ere, kulturaren kontsumoaren faktore argigarritzat gizarte-jatorria hartuz. Kulturaren kontsumoak gizarte-desparekotasuna eragiteko duen ahalmenaren inguruan ez da horrenbeste ikertu. Eta are gutxiago kultur ekoizpenaren inguruan, ez du-eta apenas agenda politikoaren edo akademiaren arretarik jaso.

Gizartearen esku-hartzeari buruzko zenbait esperientzia jakinetan, kultura-alorreko parte-hartzea gizarte-gaiak jorrazteko tresnatzat jo izan da. Haatik, egindako ikerketa ez da sistematikoa izan. Hala, ebidentzia badagoela dirudien arren, kultura-alorreko parte-hartzearen eta gizarte-desparekotasunaren arteko erlazioari buruzko jakintza ez da batere zehatza edo argigarria oraindik ere.

Horiek horrela, pobrezia-artearen gaiari ez ezik, kultura-alorreko parte-hartzearen gaiari ere helduko diogu (orobat, ekoizpen profesionala ere jorrazteko dugu); azkenik, bien arteko erlazioari ere sakon helduko diogu. Elementu guztien arteko erlazioa zein den jakiten lagunduko digu horrek guztiak.

Gaiak dakiguna kontuan izanik hastapenetan gaudela aintzat hartuta, funtsean, helburua da gizarte-desparekotasunaren eta kultura-alorreko parte-hartzearen arteko lotura kontzeptualki funtsezkoa.

## 1.2\_Lanaren justifikazioa

Eztabaida honen inguruan oso garrantzitsua da aurrerapausoak pixkanaka-pixkanaka ematea; izan ere, gai honen azterketak zeresan handia izan lezake gizarte-garapenean eta kulturaren alorreko politika publikoen diseinuan.

Ikerketa-eremu zabala dela jakinik eta kontuan hartuta gaiari esplizituki ez zaiola apenas heldu, “gizarte-desparekotasunaren eta kultura-desparekotasunaren” inguruan gogoeta egitea eta hura kontzeptualizatzea proposatzen dugu.

Gainera, gaiari buruzko egungo eztabaidan badira zenbat urritasun, eta lan honek horiei heldu nahi die:

- 1) Nola eragiten dieten gabezia sozial eta ekonomikoek kultura-alorreko parte-hartzeari eta kultura-ekoizpen profesionalari.
- 2) Zer nolako eragina izan lezakeen kultura-alorreko parte-hartzeak, gizarteratzeko mekanismo gisa, gabezia horietan.

Kontu horiei buruzko jakintza eskuratzeko gizarteratzearen aldeko estrategiak garatu behar dira, baina publikoak eratzeko estrategiak ere bai; orobat, beharrezkoa da kultura-alorrean parte-hartzeko modu ugarien eta haren ahalmenaren inguruko gogoeta egitea.

## 1.3\_Helburuak

Esplorazio-lan kontzeptuala bada ere, hona hemen ikerlanaren helburuen nondik norakoak:

- 1- Kulturaren alorrean, kontsumoan zein ekoizpenean, gizarte-desparekotasuna nola eta zergatik gauzatzen den aztertzea.
- 2- Kultura gizarte-desparekotasuna iraunarazteko faktorea dela ulertzea.
- 3- Kulturak gizarte-desparekotasuna gainditzen nola lagun lezakeen aztertzea.

# 2\_Esparru teorikoa

## 2.1\_Pobreziaren inguruan

“Pobrezia” arrunki erabili ohi den terminoa bada ere, xedea ikertzea duen hurbilketa bat egiteko, ezinbestekoa da “pobre izatea” zeri esaten diogun argitzea.

Hainbat ikuspuntuk egiten duen lehen bereizketa objektibo/subjektibo dikotomian datza. **Pobrezia subjektiboak** gizabanakoek euren egoeraz duten pertzepzioa neurtzen du eta halakoetan, gizabanakoak erreferentziako gizartearekin alderatu ohi du bere burua. **Pobrezia objektiboaren** ikuspuntuak, ordea, gabezia materiala neurtzen du eta horretarako, adierazle behagarri eta neurgarrietan oinarritzen da, hala nola diru-sarreretan, enpleguan, etxebizitzan etab.

Gabezia materialarekin lotutako pobrezia objektiboa, era berean, erlatiboa edo absolutua izan daiteke. Pobrezia-maila neurtzeko erabiltzen diren kontuak dira.

**Pobrezia erlatiboak** gizarte bakoitzak bere bizi-maila duela onartzen du eta, hortaz, pobrezia erlatiboa izan behar duela ere bai. Pobreziaren ikuskera honek berebiziko garrantzia hartzen du gizarte-desparekotasunaren eztabaidan. Osera, **pobrezia absolutuak** gizabanakoa bizi den gizartetik apartekotzat jotzen du pobrezia. Hala, badira gabezia materialen minimo “aldagaitz” batzuk eta horiek munduko edozein bazterretan baliagarriak izan behar dute. Pobrezia larriko egoera adierazten dute. Zalantzarik gabe, horrek haren ahalmen informatiboa murrizten du. Pobrezia absolutuaren izaera kontuan hartuta, herrialde azpigaratuetan edo garapen-bidean dauden herrialdeetan erabiltzen da batez ere, herrialde garatuetan pobreziaren errealitatearen zati txiki bat baino ez baitu adierazten.

Bestalde, pobreziaren fenomenoari dimentsio bakarreko edo dimentsio anitzeko ikuspuntutik hel diezaiokegu. Arrunki, ikuspuntu ekonomizistatik eta kuantitatibotik begiratzen zaio. Hala ere, pobreziaren fenomeno hori baino konplexuagoa da eta hala, ikuspuntu dimentsio-aniztunetik begiratzea eskatzen du. Ikuspuntu dimentsio-bakarra monetarioa izaten da ia beti, eta, oro har, diru-sarreretan edota gastuetan oinarritzen da eta, beraz, **pobrezia materialaren** ikuspegitik hitz egiten da. Badira pobrezia baloratzeko beste neurri batzuk ere, adierazle dimentsioaniztunak bilatzearekin zerikusia dutenak.

Dimentsio anitzeko ikuspuntua hertsiki lotuta dago **gizarte-bazterketaren** kontzeptuarekin. Gizarte-bazterketa terminoa pobrezia terminoa baino askoz zabalagoa da, ez baititu zailtasun ekonomiko larriak edota gabezia material larria duten gizabanakoak soilik hartzen. Azken urteotan, Europako Batzordeak gizarte-bazterketa terminoa zabaldu du bere eraginpeko lurraldeetan.



Gizarte-bazterketaren kasuan, diru-sarrerez eta gastuez gain, beste dimentsio batzuk hartzen dira aintzat. Gizabanakoak gizartean zenbateraino parte hartzen duen hartzen da kontuan nagusiki, besteak beste: kultura-alorreko parte-hartzea, lan-merkatuan zer bilakaera izan duen eta heziketa-maila. Hein handi batean, terminoa hala erabiltzeko eta hedatzeko modua arazo ekonomikoak eta sozialak kontzeptualizatzeko moduarekin dago lotuta. Gaur egun, gizartearen arrisku sozialak ez dira klase sozialaren arabera (ongizate-estatu fordistetan bezala), gizabanakoen arabera baizik. Egungo arrisku sozialek hainbat eremutan gertatutako aldaketekin dute zerikusia: aldaketa teknologikoak (lanean eta eredu ekonomikoan dute eragina), aldaketa demografikoak (zahartzea, migrazio-mugimenduak), familiaren eremuko aldaketak (**male breadwinner/female housekeeper** eredu tradizionala aldatu egin da) eta lanaren alorreko aldaketak (lan-merkatuaren antolamendua eta ibilbideak aldatu egin dira).

Kontuan izan behar dugu pobrezia-artearen neurketak galdeketa bidez egiten direla. Hori dela-eta, pobrezia edo gizarte-bazterketa egoera larriaren dauden gizabanakoek ordezkaritza txikia izaten dute laginetan, ezinezkoa baita haienganaino ohiko metodoen bidez (aurrez aurreko edo telefono bidezko galdetegiak) iristea.

Errealitatearen irudi zehatzagoa erakusteko, aldagai monetarioaren kontzeptua zabaldu eta ondasun- eta zerbitzu-gabezien planteamendu dimentsioaniztuna hartzeaz gain, gizabanakoen egoera ez ezik, etxebizitzak ere hartzen dira azterketa-unitatetzat. Izan ere, garrantzitsua da ikustea zer nolako eragina duen familia-egoerak pobrezia-egoeretan.

Oso bestelakoa den hurbilketa bat da aztertzea pobrezia-egoeraren dauden gizabanakoek beren burua nola ikusten duten. Hala, **“pobrezia adierazgarriaz”** dihardugu, gabezia bizitzeko moduak sortzen dituzten kondizioak adierazteko. Pobrezia erlatiboarekin lotuta dagoen ideia da, baina subjektiboagoa. Gabezia-kondizioak (materialak) gabezia-sentimenduekin osatzen dira. Gizabanakoen itxaropenak zeinen garrantzitsuak diren ematen du aditzera eta nork zer merezi duen ideian oinarritutako usteekin dago lotuta. Halaber, erakusten digu horrek eragina duela gizartean “minimotzat” jotzen ditugun ondasun materialak zein diren ebaluatzeko orduan.

“Beren burua ikuste” hori, eraikitzen duten narratiba hori, beste arrazoi bategatik ere bada garrantzitsua: gizabanakoek eraten duten nortasunak haien pobrezia-egoeraren duen eraginaren erakusgarri izan daitekeelako, hain zuzen.

Pobrezia-artearen gaineko azterlanen lehen hamarkadetan, ideia horretan oinarrituta, “pobrezia-artearen kultura” (“culture of poverty”) delakoaren paradigma sortu zen. Gaur egun, ez da apenas ikuspuntu hori erabiltzen, doitasun-ezagatik eta haren inplikazio politikoengatik.

**Pobrezia-artearen kultura** ikuspegiak dio pobrezia-artearen kausak kulturalak edo jokabidezkoak direla, eta ez, ordea, estrukturalak edo ekonomikoak. Ikuskeraren arabera, gizarte-arauarekiko “disfuntzionalak” edo “patologikoak” diren jarrera-multzo batek esplikatzen du pobrezia eta, hala, horren ondorioz, gizabanakoek porrot egiten dute alderdi ekonomikoan. Jarrera-, uste-, balio- eta praktika-multzo horrek zenbait ondorio du pobrezia-egoeraren dauden gizabanakoen artean, hala nola: dibortzio-tasa altuagoak, ama ezkongabe eta nerabeen haurdunaldi gehiago, droga- eta alkohol-gehiegikeriaren tasa altuagoa, ekintza kriminal gehiago, etab. Halako jarrerak belaunaldi belaunaldi igarotzen dira eta, beraz, pobrezia-artearen kultura gurpil zoroa bilakatzen da. Ikuspuntu honen arabera, garrantzitsuena da gizabanako horien jokabidea aldatuko eta bideratuko duten elementuak sartzea.

Ikuspegi horrek biktimak berak bihurtzen ditu beren arazoaren errudun, kultura aldatuta pobrezia-egoeratik aterako lirakeela ematen baitu aditzera. Eta horixe da, hain zuzen, ikuspegi horrek jaso duen kritikarik handiena. Pobrezia-artearen hurbilketa horrek ahulezia asko du, bai maila politikoan bai akademikoan.

Horren parez pare, bada **pobrezia-artearen kausa estrukturalak** nabarmentzen dituen beste ikuspegi bat.

Horren arabera, pobrezia nagusiki ekonomiarekin eta erakundearen egiturarekin zerikusia duten faktoreen ondorioa da. Pobrezia-egoeraren dauden gizabanakoen gizarte-garapena ondasun materialen gabeziak murrizten du. Gabezia materialak pobrezia-egoeraren dauden pertsonen aukerak murrizten ditu. Halakoetan, lan-merkatuaren antolamenduak eta merkatuak eskaintzen dituen aukerak berebiziko garrantzia dute. Zailtasunek hezkuntzarako eta osasun-zerbitzuetarako sarrera oztopatzen dute eta, hartara, gizabanakoek are zailagoa dute pobrezia-egoeratik irtetea.

Horiek horrela, diru-sarrerarik eza ez ezik, **pobrezia gaitasun-gabezia** ere badela dion ikuspegiak sortu da (Amartya Sen Nobel saridunaren eskutik). Pobrezia-artearen kausa nagusia errentarik eza dela onartzen duen arren, gaitasun-gabeziak pobrezian eragina duela adierazten du. Nabarmentzen du, halaber, errenta ez dela gaitasuna lortzeko modu





bakarra. Zenbaitetan, gizabanakoen kasuan, ez da erraza izaten errenta funtzio bilakatzea. Horren harira, “pobrezia erreala” kontzeptua gaitasun-gabezia gisa ulertzen da eta gaitasuna esku-hartze sozialerako eremu bilakatzen da. Horrenbestez, gaitasun-gabeziagatik “pobrezia erreala” diru-sarrerarik ezagatik pobrezia baino hedatuago dago ziurrenik, askori zaila egiten baitzaie errenta funtzio “bilakatze” hori.

Langabezia-prestazioak, adibidez, errentarik ezari erantzuten dio baina ez du, ordea, gaitasun-beharra estaltzen. Hala, ikuspuntu honek aldaketa nabarmenak dakartza esku-hartzearen inguruko estrategiei dagokienez. Gaitasunaren ikuspuntuak erakusten du, hezkuntzarako eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea unibertsala izanagatik ere, gizabanako guztiak ez daudela baliabide horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko gaituta. Nabarmendu nahi dugu, halaber, ideia hori bera kulturaren esparruan ere aplikagarria dela.

Sarbidearen unibertsalizazioa lortzeko ahalegin handiak egin badira ere, ez da hain lan handia egin gizabanako guztiak gaitzeko orduan. Hala, kulturaren eremuak, hezkuntzarenak eta osasunarenak bezalaxe, desparekotasuna iraunarazten jarraituko du.

Lan batzuek, Roberta Woods et al. (2004) Europako Batzorderako idatzitako txostenak adibidez, kulturak gizarteratzean duen eginkizunari buruzkoa, dimentsio anitzeko ikuspegi batetik begiratzen diote pobrezia eta bazterkerari, eta kulturak zeresan handia duela aitortzeko aukera ematen du horrek.

Dimentsio anitzeko ikuspegitik, arazo ekonomikoak dituzten pertsonen gain, beste hauek ere aztergai bihurtzen dira eta gizartearen eraldatzeko estrategia kulturalen xede dira:

- Desgaitasunen bat duten lagunak
- Etorkinak edo errefuxiatuak
- Iraupen luzeak langabeak
- Guraso bakarrek familiak
- Etxegabeko pertsonak
- Langabe gazteak
- Mendekotasuna duten adineko pertsonak
- Premian bizi diren familiak

Konparazioan, finantza-arazoak dituzten pertsonak, gazteak, desgaitasuna dutenak eta etorkinak dira, oro har, arrisku handiena duten kategoriak.

Zenbaitetan, hauek ere sartzen dira: buru-gaixotasunak dituztenak, etxe- indarkeriaren biktimak, droga edo alkohol gehiegikeriagatik arazoak dituzten familiak, prostitutak eta gizarte- zein kultura-gaitasunik ez duten pertsonak.

Atal honekin bukatzeko, zenbait ohar egin nahi dugu lanaren garapenerekin aurrera egin ahal izateko:

**1.** Pobrezia buruzko ikerlanetan erabilitako kultura kontzeptuak ikuskerara antropologiko batetik begiratzen dio kulturari eta gizatalde baten jarrera, balio eta arauekin dago lotuta.

**2.** Kultura eta pobrezia-artearen erlazioan bada “kutxa beltz” bat. Bi elementuak erlazioan dituzten alderdiak zein diren badakigun arren, ez dakigu zer mekanismo den haien artean. Batez ere esku-hartze sozialari begira, baina baita fenomenoak ulertzearen ere, ez da nahikoa zer erlazio dute aipatzea, nola eta zergatik funtzionatzen duten baizik.

**3.** Ikuspuntu ugari daude eta, horren aurrean, aurrera egin ahal izateko, irtenbiderik emankorrena guztiek onar litzaketen minimoak topatzea da eta beraz, elkarren artean koherenteak diren elementuak kontuan hartzen dituen ikuspegi batetik jardutea eta neurri bakoitzak (subjektiboa, erlatiboa, absolutua, monetarioa...) duen ahalmenari ahalik eta etekin handiena ateratzea.

**4.** Pobrezia buruzko ikerketak eta kulturari buruzko ikerketak oso testuinguru akademiko desberdinak dituzte jatorrian. Pobrezia ikuspuntu kuantitatibotik begiratu izan zaio nagusiki eta soziologoen, ekonomialarien, politologoen eta demografoen ikertu izan dute batez ere. Kultura, ordea, ikuspuntu kualitatiboagotik eta interpretatiboagotik aztertu izan dute soziologoen baina antropologoen, humanisten eta historialarien ere bai.



**5.** Pobreziaaren kontzeptu dimentsiobakarra utzi eta gizarte-bazterketaren dimentsio anitzeko kontzeptua bereganatzeak, desparekotasunaren alderdi materialetan ez ezik, gizarteratzearen aldeko gizarte- eta kultura-dinamiketan ere jartzen du arreta berezia. Gaitasunean oinarritutako ikuspegia ere ildo beretik doa, eta gizabanakoak gaitzeko, diru-sarreraz gain, beste faktore batzuek ere bidea ematen dutela adierazten du. Kulturak zer nolako eragina duen ulertzeko eta problematikari heltzeko bidea irekitzen du horrek.

### 2.1.1. Pobreziaarekin zerikusia duten faktoreak

Egindako gogoetak ohartarazi digu kulturak berebiziko garrantzia izan lezakeela, nagusiki pobreziaarekin zerikusia duten faktoreetan inpaktua duelako eta ez hainbeste diru-sarrerarik eza zuzenean konpon dezakeelako. Aldiz, kulturaren inpaktua bazterketa-egoeretan gauzatzen da batez ere.

Jarraian, pobreziaarekin zerikusia duten bost alderdi aipatuko ditugu, kontzeptua zabaltzeko eta kultura-alorreko parte-hartzeak nola lagun dezakeen ulertzeko lagungarriak izan baitaitezke:

**1)** Kausazko erlazioirik dagoen ala ez argitu gabe dagoen arren, familia-egitura pobreziaarekin eta gizarte-bazterketarekin lotuta dago; guraso bakarreko familien seme-alabek, adibidez, elkarrekin bizi diren bikotekideen seme-alabek baino arrisku handiagoa dute pobrezia pairatzeko, eta aldi berean, azken horiek senar-emazteen seme-alabek baino handiagoa. Haatik, familia-egitura ikasketa-mailaren, lan-merkatuan duen postuaren edo beste faktore batzuen isla izan daiteke. Ekonomiaren ezaugarri estrukturalak eta pizgarri ekonomikoak erabakigarriak izan daitezke familiaren egituraketan.

Bada beste elementu garrantzitsu bat ere familiaren esparruan, gurasoek dituzten eta seme-alabei helarazten dizkieten itxaropenekin eta helburuekin zerikusia duena. Halaber, familiaren babesak sortzen duen elkartasun-sarea oso osagai garrantzitsua da. Familia-giro kalteberak zerikusia izan dezake pobrezia- eta bazterketa-egoerekin, familia-loturek askotan gizartearen aurrean segurtasun-sare gisa jokatzeko baitute.

**2)** Lan-esperientziarik eza eta kalitate txikiko lana ere pobreziaarekin lotutako faktoreak dira. Langabeziak ez ezik, jarduerarik ezak ere zerikusia du pobreziaarekin. Orobat, enplegu prekarioa beste faktore bat da eta “working poor” delakoak sortzen dira ondorioz: lana eginagatik ere, pobrezia edo gizarte-bazterketa egoeratik irten ezin duten gizabanakoak.

Egonkortasunik ez duten lan-ibilbideak ere kontuan hartu behar ditugu. Hala, honako hauek pobreziaarekin eta gizarte-bazterketarekin zerikusia duten faktore estrukturalak dira: lan-merkatu segmentatua eta maila baxueneko segmentuan, aldi baterako lana, prekarioa, lanaldi partzialean,... Lan-merkatuan gertatutako aldaketek arriskuan dauden kategoria berriak sortu ditu, besteak beste, gazteak, emakumeak, 50 urtetik gorakoak edo etorkinak.

Zailtasunak belaunaldiz belaunaldi transmititu daitezke eta kontuan izan behar dugu, orobat, langabeziak gazteengan duen intzidentziak ondoriok dituela epe luzera; hala nola, langabezia handiagoko lan-bizitzak edo lan-ezegonkortasuna helduaroan. Diru-sarreraren ezegonkortasuna eta gehiegi zorpetzea arrisku-faktoreak dira.

**3)** Pobrezia, eta ondorioz, gizarte-bazterketa, badu alderdi geografiko bat, banaketa ez baita ausazkoa. Pobrezia gunek jakin batzuetan pilatu egiten da. Nabarmendu behar dugu bizilekuak ez duela pobrezia-egoeran bizi ala ez bizi erabakitzen; aitzitik, pobre garelako bizi gara bizi garen tokian.

Norberaren egoera ekonomikoak eta lan-egoerak hobera egiten duenean, mugikortasun geografikorako aukera zabaltzen da. Hala izanagatik ere, egia da, orobat, auzo pobreetako herritarrek ez dutela pobreziaaren berezko kulturarik eta, horren ordez, gizarte-balio nagusiak dituztela.



**4)** Pobreziak eta gizarte-bazterketak hezkuntzarekin ere zerikusia dute. Pobrenei zailagoa zaie hezkuntzara sartzea eta emaitza txarragoak lortzen dituzte; ondorioz, haien lan-aukerak ere ez dira berdinak. Nabarmendu nahi dugu ikerlan batzuek erakutsi dutenez diru-sarrerak gora egitearekin batera errendimendu akademiko hobea ere lortzen dela.

Lehenago esan dugun bezala, gurasoek seme-alabekiko dituzten hezkuntza-helburuek eta jarrerak zeresan handia dute zentzu horretan. Errendimendu akademikoa hobetzeko, erabakigarriak dira, besteak beste, osasuna eta ongizatea, senideen arteko elkarreragina, gurasoen arauak eta ikasteko ingurunea.

Pobreziak elementu horien guztien kontra joka dezake. Gurasoen ikasketa-maila, zehazki, haurren garapenerako oztopo handienetarikoa dela ikusi da.

**5)** Drogak eta alkohola hartzea pobreen artean arazo arruntzat hartu ohi da. Hala ere, Ingalaterrako datu batzuen arabera, drogen intzidentzia ez da apenas aldatzen klase sozial batekoa edo bestekoa izan edo gizarte-bazterketa pairatu edo ez.

Bien arteko erlazioa drogaren erabilera “problematikoekin” hasten da. Hona hemen zenbait kausa: familia- eta gizarte-sare ahulak, langabezia tasa handiak eta, oro har, aukera, baliabide eta abantaila estruktural gutxi. Gauza bera gertatzen da jarduera kriminalekin eta delinkuentziarekin ere; hala, arruntagoa da zenbait delitu pobrezia-egoeran dauden gizabanakoek egitea.

Ez da erraza halako fenomenoak galdeketa bidez aztertzea eta kuantifikatzea, fenomeno marjinalak baitira. Zenbait hurbilketak (ospitaleetako edo komisaldegietako datuek, esaterako) erakusten dute, ordea, fenomeno horiek eragin handiagoa dutela segmentu edo gunee pobreetan.

## 2.1.2. Gizarte-bazterketaren dimentsioak

EAEko gizarte-bazterketari buruzko FOESSA txostenak (2014) ideia horiek guztiak jasotzen ditu. Bertan, gizarte-bazterketa neurtzeko indize sintetiko bat sortu dute, dimentsio hauek dituen:

Gai horiek ikertzeko	Herritartasun politikoa eta soziala	Gizarte-harremanak
Enplegutik kanpo geratzea	Politikatik kanpo geratzea	Gizarte-gatazka
Kontsumotik kanpo geratzea	Hezkuntzatik kanpo geratzea	Bakartasun soziala
	Etxebizitzatik kanpo geratzea	
	Osasunetik kanpo geratzea	

Gai horiek ikertzeko erabilgarri izango dugun hurbilketa kontzeptualki deskribatzen hasi aurretik, interesgarria deritzogu FOESSA adierazle garrantzitsua dela ohartarazteari, erreferentea den heinean, baina ez duela kultura-alorreko parte-hartzea gizarte-bazterketarekin zerikusia duen faktoretzat hartzen.

Kultura-alorreko parte-hartzea erraz egokituko litzateke herritartasun politikoaren eta sozialaren dimentsioaren baitan, garapenerako funtsezko oinarria delako eta herritarren aitortutako eskubidea delako. Kulturatik kanpo geratzea, hortaz, gizarte-mailan garrantzia duen eremua da. Gizarte-harremanen atalean ere zenbait aldagai kultural sar litezke gizarte-kohesioarekin duten erlazioagatik; izan ere, kultura-alorreko parte-hartzea lotura sozialak sortzeko mekanismoa da.

Azken batean, lan hau baliagarria izan behar da erakusteko zeinen garrantzitsua den kultura pobreziari eta gizarte-bazterketari kanpo-eragin sozial mesedegarriak eragiten dizkien kontzeptutzat hartzea eta horren arabera jokatzeko.



## 2.2 Kulturaren inguruan

Lehen gogoeta da ohartzea “kultura” terminoa ez dela modu bakarrean erabiltzen. Lan honen helburuetarako, kulturaren zentzu abstraktuaren ideia nabarmendu nahi dugu; horixe darabilte antropologoek eta aurreko atalean aipatutako kultura eta pobreziaren erlazioari buruzko ikerlanek. Ikuspuntu horretatik, esan dezakegu azterketa soziologikoen ikuspegi “kulturalista” baliatzen dutela jarreraren, usteen eta balioen inguruan dihardutenean (arrazoi subjektiboak “pobreziaren kultura” ikuspegian bezala) eta ikuspegi “estrukturalista”, aldiz, ingurunearen kondizioei buruz hitz egiten dutenean (kausa objektiboak, enplegu-aukera gabezia adibidez).

Beste aukera bat kultura sektoretzat hartzea da. Adiera hori erabiltzen dute administrazio publikoek kulturako arlo, sail edo ministerioetako jardueren hitz egiten dutenean. Horixe da, hain zuzen, lan honetan interesatzen zaigun adiera.

Ikuspegi horretan oinarrituta, kultura kontsumi edo ekoitz daitezkeen jardueren ideietara mugatzen da. **Kultura-alorreko parte-hartzearen** kontzeptuak definizio honetan aipatzen dena hartzen du bere baitan: **jarduera kulturaletan, artistikoetan edo sorkuntza-jardueretan parte hartzea, bai kulturaren kontsumo-ohituren ikuspegitik, bai kultur ekoizpenaren ikuspegitik, hau da, praktika artistiko edo kultural amateurrek eginez eta kultura-elkarteetan boluntario-lanak eginez.**

**Kultur ekoizpen profesionalaren** garrantziaz ere hitz egingo dugu, baina praktika hori ez zaio ongi egokitzen “kultura-alorreko parte-hartzearen” ideiare, zehaztu izan den eta ulertu ohi den moduan. Hala, kultur ekoizpen profesionalak esan nahi du, lan-merkatuaren testuinguruan, esparru kulturalarekin eta artistikoarekin zerikusia duten lanpostuetan ekoizpenak egitea.

Kultura terminoaren eremua, eta beraz, “kulturaren sektore” delakoaren baitan dagoen guztiarena, zabaldu egin da pixkanaka-pixkanaka. Teknologia berrien eklosioari esker batez ere, zenbait tokitan, diseinu grafikoa, bideo-jokoak eta arkitektura kulturaren munduari dagozkio. Horiek horrela, kultur ekoizpen profesionalaren kontzeptua mugatu egingo dugu eta, administrazio publikoen ekintzetan bezalaxe, kultura sektore gisa ulertzen duen adieran oinarrituko gara.

Edonola ere, hemen ohartarazi nahi dugu balio kulturalaz (**cultural value**) hitz egiten hasten garen unetik kultura-alorreko parte-hartzea eta kultur ekoizpen profesionala desparekotasunaren elementu bihurtzen direla. “Balio kulturalaren” ideiak eztabaida ekarri du. Esperientzia kulturala gizabanakoengan aldaketa-efektua (**effect change**) sortzeko gai den ala ez eta desberdintasuna markatzen duen ala ez, horrek erabakitzen baitu balio kulturala. Horrek esan nahi du kultura baloratu egin behar dela, aldaketa-efektua sortzeko gaitasuna duen ala ez aitortu behar zaiola.

Kulturaren balorazioa egiteak inplikazio hauek ditu:

- Prozesuak hierarkizazioa dakar: zerk duen balio handiagoa.
- Balorazioa batek egin edo beste batek egin, ez da berdin baloratuko zerk duen balioa.
- Balorazioa egiten duten gizabanakoak gizarte-hierarkia baten baitan daude.
- Gizarte-hierarkia (klasea, generoa, jatorri etnikoa,...) eta kultura-hierarkia elkarloturik egon daitezke.
- Balio kulturalaren ekoizpenak (profesionala bereziki) ez ditu segur aski guztion interesak, premiak eta gustuak biltzen.

Eztabaidagai dugun esparruan zentzua izan dezan, aldaketa-efektua aipatutako eremuren batean (osasuna, hezkuntza, delinkuentzia, enplegua, familia...) gauzatu behar da eta gaitasunaren hobekuntza islatu behar da. Argi dago balioa zein den jakitea, dela gizartearen dela gizabanakoaren balio erantsia, ez dela lan erraza.

Kultura desparekotasunaren xede izan daitekeela konturatzen garen unean bertan sortzen da Estatuaren esku-hartzeari buruzko eztabaida. Eta garrantzitsua da, baliotsutzat definitu izan denaren berme-emaila delako. Bere jardun legegilean, balioa zerk duen eta zerk ez duen aitortu behar du, hierarkia kulturalari bidea emanez. Beraz, jarduera kultural batzuek zerga bidezko laguntza jasoko dute eta beste batzuek ez. Honek esan nahi du herritarren zati batek Estatuaren mesedea jasotzen duela eta besteak, aldiz, ez; eta ikusi beharko genuke nork jasotzen duen laguntza, gizartean aparteko arazorik ez duen segmentuak (beharririk ez duena) ala segmentu kaltetuek (urritasunak dituztenak).

Demagun ahaleginak ondarea eta museoak kontserbatzearen alde egiten direla eta jarduera horiek normalean gizartean mesedetua dagoen segmentuak (beharririk ez duena) egiten dituela; hala balitz, desparekotasuna areagotuko litzateke, segmentu horrek kontsumitzen dituen produktuek jasotzen baitute diru-laguntza.



Hala, ondare material eta ez-materialak, goi-mailako kultur erakundeei ematen zaien babes eta zuzeneko arteen ekoizpen eta erakustaldi profesionalak Estatuaren ardurapean egon ohi dira (monitorizatu eta finantzatu egiten baititu). Zerrenda horretan, beraz, ez dugu aurkitzen lurralde edo kolektibo jakin batzuen kultura-alorreko parte-hartze aktiboaren pizgarri izan nahi duten nazio-mailako programarik edo aurrekonturik. Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea, zenbait txostenek aditzera ematen dutenez, jarduera horietarako sarbidean badela egoera sozioekonomikoaren arabera desparekotasuna<sup>1</sup>.

Gizarteak (eta ez soilik Estatuak) baloratzen duena generoaren, adinaren, klasearen edo etniaren arabera (pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden kategoriekin zerikusia duten ezaugarriak) egituratzen da; kasuak kasu, baliosutzat jo denarekin eta beraz, Estatuak mesedetutakoarekin eta diruz lagundutakoarekin bat etorriko da, edo ez. Bat etortze horrek, hortaz, desparekotasuna areagotu egin lezake.

Azken ohar bat egin nahi dugu: tokian tokiko mailan (batez ere) aurrera eramaten diren politikek, programek eta proiektuek adierazten dutenez, kultura lagungarria izan daiteke gizarte-ingurune kohesionatukoak eta inklusiboak sortzeko. Hau da, kulturak eragin mesedegarria izan dezake gizarte-sisteman. Aldi berean, horrek inplizituki aitortzen du kulturak eragin kaltegarria ere izan dezakeela, gizarte-desparekotasuna iraunarazteko edo areagotzeko balio dezakeelako.

## 2.2.1. Kultura, gizartea eraldatzeko tresna

80ko hamarkadan, kulturaren balio ekonomikoa aldarrikatzen hasi ziren. Neoliberalismoaren eta haren murrizketa publikoen politiken goraldia ikusirik, artearen sektoreak defentsa-estrategia baliatu zuen eta hala, ekonomiaren arloko terminologia erabiltzen hasi zen, besteak beste: “kulturgintzaren industria”, “produktuak”, “kontsumitzaileak”, “inbertsioa”, etab. Kultura funtzio instrumentalaz hornitzeko modua zen.

Aurrerago, 90eko hamarkadan, kulturak garrantzia hartu zuen gizarte-garapenaren eta hiria berronertzeko alorrean; Ingalaterrako *neighbourhood renewal* delako politikek ardaztu zuten joera hori. Kulturari ikuskera instrumentala emateko beste modu bat izan zen, baina oraingoan, inbertsio publikoaren justifikazioa ez zen itzulkin ekonomikoa,

soziala baizik. Hala, kultura kanpo-eragin sozial mesedegarriak zituen inbertsio gisa ulertzeko ikuskera garrantzia hartzen joan zen, udalerrietan batez ere, eta horren aldeko hiri-politikak garatu ziren (ez zen gauza bera gertatu, ordea, nazio-mailako politika handiek).

Hiri-politikek hurbiltasunaren ideia jarri zuten agerian. Hurbiltasun-faktoreak aldaketa dakar kultura-politiketan. Azpiegitura handiak eta sarbidearen unibertsalizazioa (kulturaren demokratizazioa) alde batera utzi eta “gizarte-gertutasuneko” ekipamenduetara (hurbiltasunezkoetara) eta kultura-alorreko parte-hartzea sustatzera (demokrazia kulturala) bideratzen dira ahaleginak.

Kultura-desparekotasuna, lehen esan dugun bezala, “balio kulturalaz” hitz egiten hasten garenean gertatzen da; pertsonengan duen aldaketa-efektuz hitz egiten hasten garenean. Ikuspegi horri helduz, hurbiltasuna balio kulturala gerturatzeko edo eskaintzeko faktore gisa uler daiteke. Lehenago esanagatik ere, interesgarria deritzogu balio kulturala kontsumitu edo ekoitzi egin daitekeela eta, beraz, desparekotasunak bi alderdi horiek izan ditzakeela azpimarratzeari.

Kulturaren balioak, aldaketa-faktore izateko ahalmenak alegia, kultura gizartea eraldatzeko tresnatzat hartzen duen ikuspegiarekin du zerikusia. Horregatik, beharrezkoa da kulturaren askatzeko ahalmenari buruz eta kulturaren gizarte-ontasunei buruz gogoeta egitea.

Balio kulturala aldaketa-efektu gisa ulertzearen ideia abstraktua da eta horregatik sortzen dira eztabaidak. Aldaketa-efektua honako hauen bidez gertatzen da:

- Jakintza
- Ahalduntzea eta kontzientzia hartzea
- Norberaren errealizazioa
- Gizarte-nortasuna sendotzea
- Gizarte-loturak

Batez ere, gizabanakoen gaitasuna garatzean datza; hartara gai izan daitezen (errepikatzea barkatuko duzuelakoan) balio kulturalari, hau da, sortzen duen aldaketa-efektuari, ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

<sup>1</sup> Esparru batzuetan horixe gertatzen dela adierazten du, adibidez, Britainia Handiko CASE ikerketa-programaren txosten zabal eta argigarriak: “Understanding the drivers, impact and value of engagement in culture and sport”



Britainia Handia izan zen politika eta proiektu kulturalen bidez hiria berroneratzeko prozesuak abiarazi zituen lehenengo herrialdea. Kulturak zeresan handia izan zezakeela-eta, ideia horrek 60ko eta 70eko hamarkadetako gizarte-ekintzaren mugimenduan (**community action movement**) du jatorria. Mugimendua bi joerari erantzuteko sortu zen: funtsean gizartearenak ziren arazoak indibidualizatzeko joerari eta goitik beherako esku-hartzearen joerari. Hala, komunitateari eta toki-agintariei indar handiagoa emateko premia ikusi zuten, elkarrekin euren helburuak zehazteko eta aurrera eramateko aukera izan zezaten.

Hamarkada haietan, aurrekoari gehitzen zaion beste mugimendu bat ere sortu zen: komunitate-arten mugimendua (**community arts movement**). Arteak eta artistak ikus-entzuleekin hurbiltasun handiagoa izan beharko luketela aldarrikatzen zuen eta batez ere goi-mailako klaseei mesede egiten zion eta Estatuaren diru-laguntza jasotzen zuen arte elitista kritikatzeko. Mugimenduak Estatu kritikatzeko, esanez haren kezka bakarra sarbidea izateko aukerak sortzea zela, baina benetako arazoa kulturaren kontsumoa eta kultur ekoizpena bereiztean zetzala.

Espainiako estatuan (eta beste herrialde batzuetan) asko dira horren harira eginiko tokian tokiko esperientziak, nahiz eta gehienak ezagunak ez izan. Udalak, dela premiagatik dela interesagatik, esku-hartze sozialerako estrategiak erabiltzen hasi dira haien eskumena baliatuz. Hala, udaletan alderdi hori jorratzeko hiri-mailako politika kulturalak aurrera eramateko aukera dago. Nazio-mailan ez bezala, udalen esparrua malguagoa da. Horregatik, aurrekontu murrizta izatea eta epe laburreko proiektuak ez dira oztopo. Egia da, ordea, errealitate horrek proiektu (eta enplegu) prekarioagoei, ezegonkorragoei eta udalen arteko esku-hartze koordinatu eta homogeneo ezari bidea errazten diela.

Azken hamarkadan, errealitate hura ezagutu zenetik, Europako Batzordea arreta berezia eskaintzen hasi zaio kulturak gizarte-bazterketan izan lezakeen eraginari (2005). Hain justu, tokian tokiko esperientzietatik ikastean datza, geroago goragoko mailetatik estrategiak garatu ahal izateko.

Espanian eta Europan, kontzeptuzko aipamenez aparte, ez dago kultura eta bazterketa tandemaren alderdiak baloratzeko neurketarik. Horrez gain, praktikan, bazterketarekiko ardura oraindik ere pobreziaren eta enpleguaren eremu tradizionalak mugatzen dela dirudi.

Horri aurre egiteko, komunitatean eta kultura-alorreko parte-hartzean oinarritutako estrategiei balio handiagoa eman behar diegu. Matarasso (1997) eginiko Comedia txostenean ohartarazten dutenez, hainbat abantaila dute, besteak beste:

- \_ **Jarduera kulturala nahiko merkea (kapital-inbertsio altuekin alderatuta) eta oso eraginkorra da kostuei dagokienez**
- \_ **Bizkor gara daitezke tokiko beharrei eta ideiei erantzunez**
- \_ **Malguak dira eta eskakizunen arabera alda daitezke**
- \_ **Arrisku txikiarekin oso itzulkin handiak izateko aukera ematen du**
- \_ **Kostuaren aldean inpaktu ikaragarria izan dezakete**

Horien ezaugarriak esku-hartze publikorako baliabide ahaltsuak eta erakargarriak izateaz gain, kultura-alorreko parte-hartzearen estrategiek onura hauek ere ekar diezaiakete norbanakoari zein komunitateari:

- 1. Mesedegarria da norbanakoaren hazkuntzarako, gizabanakoaren interesaz elikatzen delako, autokontzientzia hobetzen duelako eta norbanakoaren ahalmena eta gaitasuna garatzen dituelako. Eta horrek guztiak pertsonen enplegarritasuna hobetzen du.**
- 2. Gizabanakoak eta Administrazioa elkarreaginean aritzeak informaziorako eta zerbitzuetarako sarbidea errazten du.**
- 3. Gizarte-sareak eratzeak, harremanetan egoteak eta elkar ulertzeak gizarte-kohesioa lortzeko bidea ematen du. Gizabanakoen kapital soziala hobetzen da eta hobera egiten dute, ondorioz, haien gizarte- eta lan-aukerek ere.**
- 4. Komunitatea ahaldunduz da eta autodeterminazio ahalbidetzen da, gizarte-arazoei aurre egiteko nor bere burua antolatzeko ahalmena eta sormena sustatuz.**
- 5. Pertinentzia-sentimendua eta tokiko nortasuna indartzen dira eta, ondorioz, gizarte-kohesioa eta komunitatea ere sendotu egiten dira. Aniztasuna kudeatzen eta bazterketa kulturalaren kontra borrokatzen laguntzen du.**
- 6. Jarduera kulturalen esparruan, bizkor ari dira hazten industriak eta lan-aukerak. Enplegu-aukera berriak sortzen dira sektorean.**

Kultura eta bazterketaren tandemaren adierazle espezializatuagorik ezean, UNESCOren Garapenerako Kulturaren (2014) laneko adierazle-multzotik hainbat proxy hauta ditzakegu. Aldagai horiei esker jakin ahal izango dugu, zeharka, kulturak zer inpaktu duen, zer nolako aldaketa-efektua duen, gizarte parekideagoak eratzeari dagokionez. Egindako hautaketa orain arte egindako lanaren alderdi nagusiekin bat dator. Kultura-alorreko parte-hartzearen eta pobreziaren arteko erlazioa nola kontzeptualizatu jakiteko, hainbat alor eta eragileren ideien bateratasunean jarri behar dugu arreta.



Parekotasun handiagoko inguruneak lortzeari dagokionez kultura-alorreko parte-hartzeak izan dezakeen eragina aztertzeke, ondorengo adierazle hauek hautatuko ditugu UNESCOren adierazleen artean:

- \_Kultura-alorreko enplegua
- \_Familia-etxeen kultura-gastua
- \_Heziketa artistikoa
- \_Sektoreko profesionalen formakuntza
- \_Gizarte zibilak kultura-gobernamenduan duen parte-hartze maila
- \_Azpiegitura kulturalen banaketa
- \_Parte-hartze maila familia-etxetik kanpoko jarduera kulturaletan
- \_Parte-hartze maila nortasuna indartzen duten jarduera kulturaletan
- \_Pertsona arteko konfiantza
- \_Erabaki askea (erabaki askerako mailaren pertzepzioa)

Esan behar dugu UNESCOk berak kultura-alorreko enplegua garapenerako kulturaren adierazletzat jotzen duela batez ere. Hala ere, ikusi beharko genuke ea merkatu-bereizketa dagoen edo kultura-alorreko enplegu horietarako sarbidea askea den (parekotasunezkoa), tartean gizarte-determinatzaileak egon gabe.

## 2.3 \_Kultura-alorreko parte-hartzea eta pobrezia

Pobrezia, zentzu hertsian, materiazkoa da nagusiki eta horregatik, zaila da materiazkoa ez den beste irtenbiderik aurkitzea. Hori ukazina da, baina –egindako gogoetarekin jarraituz– horrek ez du esan nahi kulturak ezin duenik lagundu pobrezia-egoera gainditzeko. Beraz, kultura-alorreko parte-hartzeak pobreziarekiko erlazioan zer nolako eragina duen, pobreziarekin batera doazen faktoreetan duen inaktuaren araberakoa izango da. Eta horregatik jotzen da gizarte-bazterketaren kontzeptu zabalagora. Hortaz, ulertu behar dugu kultura-alorreko parte-hartzeak pobreziarekin baino elkarreagin handiagoa duela gizarte-bazterketarekin.

Gizarte-bazterketa terminoak, gabezia ekonomikoaren ideia ez ezik, horrekin lotutako beste faktore mugakide batzuk ere hartzen ditu barne. Kultura-alorreko parte-hartzeak pobrezian eta gizarte-bazterketan zeresan handia badu, faktore horietan duen eraginagatik da. Kultura-alorreko parte-hartzeak zeresan handia du, bereziki, gaitasunari buruzko ikuspegia kontuan hartzen badugu. Kulturak gaitasuna hobetzen laguntzen du eta gaitasuna da desparekotasunaren ardatza. Gaitasunak gizabanakoen pobrezia-determinatzaileekin du zerikusia eta kultura-alorreko parte-hartzeak nekez eragingo die pobrezia-determinatzaile estrukturalari (adibidez, ez du berak bakarrik herrialde bateko egoera makroekonomikoan eragin erabakigarri izateko gaitasunik).



Lan honetan hiritartasunarekin lotu ohi diren ondasunetarako, zerbitzuetarako eta baliabideetarako (gaitasuna barne) sarbiderik eza pairatzen duten gizataldeak kontuan hartzen dituzten definizioak baliatuko ditugu. Hala, kultura herritarren eskubidetzat eta garapen jasangarrirako laugarren zutabetzat jo izan da eta Kulturaren inguruko Agenda 21 tresnak ere aitortzen du kulturak zentzu horretan duen zeregina.

Zentzu horretan, kultura-alorreko parte-hartzea erabakigarria izan daiteke osasunaren, krimenaren, enpleguaren eta hezkuntzaren alorrean, gizarte-bazterketa gertatzen den esparruetan alegia. Kulturak gaitasuna hobetu eta aldaketa-efektua eragin dezake. Hala ere, gizarte-bazterketa kulturaren esparruan ere gauzatzen da. Horixe zen FOESSAren adierazlearen inguruan egin nahi genuen gogoeta.

Lehenago azaldu dugunez, kultura-alorreko parte-hartzea, kulturaren kontsumo gisa ez ezik, kultur ekoizpen gisa ere uler daiteke (eta azken hori, aldi berean, profesionala edo amateur izan daiteke). Hurrengo kapituluek kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioari helduko diote aipatutako ikuspegi horietatik banan-banan.



### 2.3.1. Kulturaren kontsumoa eta pobrezia

Kultura-alorreko parte-hartzearen eta pobreziaren -edo hobeto esanda, klase edo posizio soziala- arteko desparekotasun-erlazioa kulturaren kontsumoa besterik kontuan hartu gabe aztertu izan da gehienetan. Hori hala da, seguruenik, Estatua funtsean kulturarako sarbidea bermatzeaz eta sustatzeaz arduratu delako. Bestela esanda, kulturaren kontsumoa merkatuaren ikuspegitik.

Hala ere, nabarmendu behar dugu, orain arte egindako ikerketek eta gogoetek ondorioztatu dutenez, kultura gizartea eraldatzeko tresna izan daitekeela; baina, horretarako, beharrezkoa da gizabanakoak kulturaren eragile aktibo (ekoizleak, sortzaileak) bihurtzea eta ez, ordea, kontsumitzaile pasibo. Hau da, badirudi balio kulturalaren aldaketa-efektuak ibilbide laburragoa duela, ahalmen txikiagoa duela, kontsumoaren bitartez. Eta horrexegatik eskaintzen zaio arreta berezia kultur ekoizpenari, aldaketa-efektuaren ibilbidea luzeagoa izan baitaiteke eta gizarte-onurak handiagoak.

Kontsumoaren azterketarako hurbilketa ideia batean oinarritzen da: hainbat posizio sozial desberdinetan diren hainbat gizabanakok desberdin kontsumitzen dute. "Balio kultural" izendatua den eta pertsonengan aldaketa-efektua eragiten duen baliabide horretarako sarbidea ez da ekitatiboki banatzen. Bi ikuspegi nagusi saiatu dira errealitate hori azaltzen. Hirugarren ikuspegi bat ere aipatuko dugu, nahiz eta ez duen oinarri enpiriko sendorik:



**Bourdieuaren ikuspegia**, klase sozialean oinarrituta: Pierre Bourdieuk zioen kulturaren kontsumoa gizarte-bereizketa kontua zela. Goi-mailako klase soziala gainerakoengandik bereizten saiatzen da eta horretarako, bere estatusaren arabera kulturaren kontsumoa egiten du. Hala, goi-mailako klaseek eta behe-mailako klaseek ez dituzte produktu kultural berak kontsumitzen. Horrenbestez, gizarte-mailako desberdintasunak kultura-mailan ere errepikatu egiten dira. Homologiaren argumentua erabiltzen da halakoak azaltzeko, hau da, klase sozialak bi eremuetan berdin gauzatzen direla erakusteko.

**Weberren ikuspegia**, estatus sozialean oinarrituta: homologiaren argumentuak arrakasta handia izan bazuen ere, aurreikuspen teorikoen kontrastatze enpirikoak emaitza ahulak erakutsi ditu.

Klase sozialak nahiko ahul esplikatzeko errealitatea eredu estatistikoetan eta hala, Weberren tradizioari jarraitzen dioten zenbait autorek (John Golthorpek adibidez) estatus sozialaren kontzeptua aztertu nahi izan dute horregatik. Estatus sozialaren kontzeptua zabalagoa da. Klase sozialak gizabanakoak ekoizpen-erlazioetan duen posizioarekin du zerikusia. Estatus sozialak, aldiz, gizabanakoak lan-munduko egituraren duen posizioarekin du zerikusia.

Ikuspegi interesgarria eta berritzailea da; izan ere, omniborotasun edo uniborotasun kulturalaren argumentuaren (produktu kulturalen aukera-sorta zabala kontsumitzea edo produktuen aukera-sorta mugatua kontsumitzea) aldeko ebidentzia enpirikoa eman du.

Azterketen arabera, ez dago homologiarik pobre/uniboro eta aberats/omniboro binomioetan. Horren ordez, bizimodu kulturalarekin lotutako beste alderdi batzuek dute horretan garrantzia, hala nola, hezkuntzak, enplegu motak...

**Ikuspegi postmodernoa**: ideia postmodernistak ohiko moduan gauzatzen dira esparru honetan eta indibidualizazioa baliatzen dute argumentu gisa.

Egile postmodernoen ez dute uste gizabanakoen kontsumoaren desberdintasunak ulertzeko efektu sozialaren ahalmena eta habitus delako kontzeptua argigarriak direnik. Gizabanakoen kontsumoan dauden desberdintasunak ez dira haien gizarte-jatorriaren arabera. Ez dago kulturaren kontsumoa azaltzen duen kategoria kolektiborik. Horren azalpena da gizabanakoen euren gustua libre erakitzen dutela.

Halako ikuspegi ahuleziarik handiena da ez dutela euskarri enpirikorik, nahiz eta, teoria horien liluratzeko ahalmena dela-eta, arreta handia jasotzen duten.





Halaber, kulturari dagokionez, bada beste ikuspegi interesgarri bat:

**Ikuspegi geo-espaziala:** kulturaren kontsumoan bada sarbidea izateko muga geografikoekin zerikusia duen gako bat. Lurralde-antolamendu estrategikorik ezean, ekipamendu kulturalen (antzokiak, museoak, liburutegiak, kultur etxeak) banaketa desparekotasunaren indartzaile izan daiteke.

Pobreziak lurraldean duen banaketa ausazkoa ez denez, muga ekonomikoaz gain, bada, orobat, muga geografikoa ere. Espazioa pobrezia-artearen dimentsio anitzetako bat da. Pobrezia-pilaketak eta lurraldeen araberako desberdintasunak daudela ikusi da hainbat mailatan (adibidez, hirietako pilaketak edo hiri/landa arteko desberdintasunak).

Espazioak desparekotasunaren, pobrezia-artearen eta gizarte-bazterketaren existentzia eta iraunkortasuna azal ditzake. Pobrezia-artearen osagai espaziala aztertzea, beraz, kultura-artearen politika publikoak eratzeko lagungarri izan daiteke.

Alderdi psikologikoetan oinarritutako beste ikuspegi bat ere aipatu nahi dugu, psikologiak kulturaren kontsumoaren irudi osoagoa izaten laguntzen baitigu:

**Beharrei buruzko ikuspegia:** agerikoa iruditu dakigukeen arren, kulturaren kontsumoari buruzko ikerketek portaeraren azalpenaren alderdi estrukturalistan jarri dute arreta nagusiki eta ahaztu egin dute gizabanakoek hautatzeko tarteak dutela. Kulturaren kontsumoa azaltzeko, gizartearen kanpo-faktoreetan jarri da batez ere arreta (klase sozialean edo hiri-banaketan adibidez).

Beharrei buruzko ikuspegiak faktore psikologikoen garrantzia nabarmendu nahi du, hala nola:

- Behar emozionala: sentipen berriak bizitzea, egunerokotasunetik irtetea
- Behar kulturala edo jakin beharra: jakintza hobetzea
- Behar sinbolikoa: nortasuna adieraztea eta eraikitzea
- Gizarte-beharra: esperientzia partekatzea, besteekin harremanetan egotea

Behar horiek asetzeak kontsumoa areagotzen du eta ohiturak sortzen ditu. Hala, hainbat jardueratan bizi den esperientzia kulturalaren garrantzia nabarmendu nahi du ikuspegiak. Esperientzia kulturala nolakoa izan, ohiturak eta praktikak indartu edo alde batera utziko ditugu.

Gizabanako guztiek ez dute kultura modu berean kontsumitzen eta, hortaz, kulturak haiengan duen aldaketa-efektua ere ez da berdina.

Lehenago esan dugunez, kulturarako sarbidean dagoen desparekotasuna areagotu egin daiteke Estatuak kulturalki baliotsutzat jotako jarduerak diruz laguntzen dituenean. Finantzaketa kulturaren demokratizazioaren edo sarbidearen unibertsalizazioaren ikuspuntutik egin izan da batez ere, eta ez, ordea, demokrazia kulturalaren ikuspuntutik.

Metafora baten bidez esateko, ahaleginak “ateak zabaltzera” (eskaintzarako sarbidea unibertsalizatzera) bideratu dira, baina ez da, ordea, “sartzera gonbidatu” (eskaria, premia sortu). “Ateak zabaltze” hutsa ez da nahikoa, herritar guztiek ez baitute “gonbidapen” gisa ulertzen. Ateak zabaltzea nahikoa da lehenagotik eskari edo premia aktiboa zuten herritarren kasuan; hartara, esperientzia kulturalarekiko zuten muga bakarra desagertu egin da.


Idea hori hobeto ulertzeko, lagungarria izan daiteke kulturaren publikoei buruzko azterketaren aipamen laburra egitea.

Horren guztiaren ondorioz, gizartearen zenbait segmentuk etekin handiagoa atera diote Estatuak diruz lagundutako jarduerari. Horiexek kontsumitzen dute, hain zuzen, balio kulturala. Haatik, herritarren zati batek ez du jarduera kulturalik kontsumitzen edo ez behintzat diruz lagundutako balio kulturalako jarduerarik. Bestelako muga batzuk dituzten gizarte-segmentuak dira (pobreziari edo gizarte-bazterketari dagokionez ahulak); izan ere, ez dute lehenagotik eskari/premia aktiborik. Ez da nahikoa kokaleku jakin batean ekipamendu kultural bat jartzea, ekipamendua edozein dela ere, horrek ez baitu etekina aterako zaionik bermatzen: beharrezkoa da demokrazia kulturalaren, eskaria sortzearen eta herritarren parte-hartzearen aldeko gizarte-lana egitea gaitasuna sortzeko edo indartzeko.

Eta ez hori bakarrik. Beharrezkoa da, orobat, eskaintza kultural guztiak aintzat hartzea eta ez soilik orain arte balioztatutako jotakoak. Borondatezko lan kulturala edo amateur praktika ere (kultura-alorreko parte-hartze orokor gisa), dela banakakoa zein taldekoa, aldaketa-efektuaren balioa duen jardueratzat hartu beharko genuke.

Alde horretatik, faktore hauek areagotu dezakete desparekotasuna:

- 1. Pobrezia-pilaketaren alderdi geografikoek eta hurbiltasuneko proiektu edo ekipamendu kulturalen urritasunak.**
- 2. Pobrezia-egoeran dauden gizabanakoek eurek garatutako jarrerak, horiek kultura “ofizialetik” at dauden gizabanakotzat hartzen badituzte.**
- 3. Beste eremu batzuetako desparekotasunak, funtsean hezkuntzaren arlokoak, kultur ohiturekin eta praktikekin lotuta dagoelako (zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa, kulturaren are eta kontsumo handiagoa): Gizarte-egitura desparekotasuna eragiten edo iraunarazten du hezkuntzan eta honek, aldi berean, desparekotasuna eragiten edo iraunarazten du kultura-alorrean.**



## 2.3.2. Kultur ekoizpena eta pobrezia

Balio kulturalaren kontsumoaren desparekotasuna ekoizpenarena baino gehiago aztertu izan da. Balio kulturala, baloratzeko ekintza barne hartzen duena, prozesu aktiboa da; edozein pertsonak ekoitzi dezake balio kulturala eta aldaketa-efektua. Are gehiago, esan genezake esperientzia kulturalarekin bizi den aldaketa-efektuaren balioa handiagoa dela ekoizpen aktiboan kontsumo pasiboan baino.

Lehenago aipatu dugun komunitate-artearen mugimenduaren iritziz, kultura-alorreko parte-hartzearen ahalmena da kultur ekoizpena eta kulturaren kontsumoa bateratzeko gai izatea. Desparekotasuna artisten eta publikoen arteko bereizketan edo ekoizleen eta kontsumitzaileen artekoan errotzen da. Kultur ekoizpenean aktiboki aritzeak kanpo-eragin sozial mesedegarriak izan ditzake, desparekotasuna gainditzeko faktore izan daitekeelako. Pasiboki aritzea, hau da, gizabanakoa kultur ekoizpenetik at uztea, desparekotasun hori iraunarazteko faktore bihur daiteke.

Lehenago ere esan dugu aldaketak, kulturak gizarte-mailan duen ahalmen eraldatzaileak, ibilbide luzeagoa duela kultur ekoizpenaren esparruan.

Hobeto ulertzeko, balio kulturalaren ekoizpena profesionala edo amateur izan daiteke:

— Ikuspuntu profesionaletik begiratuta, alderdirik garrantzitsuenak kulturgintzaren industriaren lan-merkatuarekin zerikusia dutenak dira eta galdera honi erantzuten diote: nork ekoizten du profesionalki balio kulturala?

— Ekoizpen amateurraren ikuspuntutik, jarduera artistikoetan edo sorkuntza-jardueretan amateur gisa parte hartzearen ideia garrantzitsuenak hurbiltasunezko kultura, gizarte- eta kultura-animazioa eta gizarte-garapena dira.

## Kulturgintzaren industriaren baitako ekoizpen profesionala

Lehenik eta behin kulturgintzaren industria kontzeptuak izan duen hedapenaz gogoeta egitea komeni da. Sorkuntza-ekonomiari buruzko diskurtsoak kulturgintzaren industriaren baitan hainbat eta hainbat sorkuntza-jardura (arkitektura, diseinu grafikoa, ikusentzunezkoak,



bideo-jokoak...) sartzera eraman gaitu. Eta, hain zuzen, errealtate horren erakusgarria da "kulturgintzaren eta sorkuntzaren industria" terminoa jendartean, eta erakunde publikoen baitan ere bai, zabaldu izana.

Hala ere, kulturak hain berezko duen zinemaren sektorean, adibidez, eztabaida sortu da filmen egileen inguruan, desparekotasuna agerikoa dela eta. Horren harira, oraindik orain Cine-Regio sarearen (**European network of regional film funds**) txosten bat argitaratu da, M Gubbins (2016) egina; generoa, etnia eta klase soziala kontuan hartuta, zinemaren industrian zenbaterainoko aniztasuna dagoen aztertzen da luze-zabal(ea lanpostuetarako sarbidea parekidea den ala ez).

Lan-merkatuko beste segmentu batzuekin gertatzen den bezalaxe (nagusiki emakumeek, gazteek edo etorkinek betetzen dituztenak adibidez), desparekotasun-iturria lanpostu horietarako sarbidean dago. Esparru horretako lanpostuak balio kulturala sortzera xedaturik daude; beraz, ekoizleak ekoizpenean ere eragina izan dezake. Ekoizitakoak kanpo uzten ditu gizarte-segmentu batzuk, haien lehentasunak eta ekoizleak desberdinak direnean.

Kulturgintzaren eta sorkuntzaren industriari buruzko kontsiderazioak lagungarriak dira lan-aukeretarako sarbidearen desparekotasuna non dagoen ulertzeko:

- Lana borondatezkoa da askotan eta hori langilearen errenta-mailaren kaltetan doa aparteko babesik ez duenean (familiarena, gizarte-babesa,...)
- Proiektuak lan egiten da eta horrek ezegonkortasun eta zihurgabetasuna sortzen du bai lanaren bai alderdi ekonomikoaren ikuspuntutik
- Lan-ordutegiaz kanpo egiten diren kontatuak ez daude diruz ordainduta
- Ezinbestekoa da gizarte-sare zabala izatea, gizarte-posizio onean egotea eta kontaktu asko izatea

Enplegu eta sektore motak oztopatzen du pertsona orok sarbide-aukera bidezkoa izatea; hala, emakumeak (gizarteak haiei egotzitako zainketa-ardura dela-eta), arazo ekonomikoak dituzten pertsonak eta etorkinak, adibidez, kanpo uzten dira.

Pobrezia-egoeran dauden pertsonak oso zaila dute lanpostu horiek lortzea eta horrez gain, kontuan izan behar dugu gizabanako pobreek interes txikiagoa erakusten dutela (sarbide murriztagoa) produktu kultural nagusietan. Horiek horrela, kultur ekoizpen amateurra ekoizpen profesionalera jauzi egiteko akuilurik onena izan daitekeela nabarmendu nahi

dugu, ekoizpen amateurren gizabanakoari interesa pizten zaiolako eta trebatu egiten delako (gaitasuna eta konpetentziak garatuz). Hortaz, kanpo-eragin sozial mesedegarriak alde batera utzita, kultur ekoizpen amateurren akuiluak lan-aukerak areagotzeko eta errazteko eta kultura-alorreko lanpostuetarako sarbide bidezkoagoa lortzeko balio dezake.

## Ekoizpen amateurra eta gizarte- eta kultura-animazioa

Ekoizpen amateurra, herritarrek kultur ekoizpenean parte hartzeko modua izanik, lan-espazio handiena eta inpaktua izateko aukera handiena eskaintzen duen alorra da.

Ikuspegi horretatik, helburua ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko edo artistaren (edo kudeatzaile edo programatzaile kulturalaren) eta publikoaren arteko mugak desagerraraztea da. Esparru honetan gauzatzen da nagusiki balio kulturala aldaketa-efektu gisa.

Kultur ekoizpen amateurtzat jotzen dira, besteak beste, praktika artistikoak musika-tresnak jotzea, idaztea, marraztea, abestea, ikus-entzunezkoak egitea,...) edo kultur elkarteetako edo proiektuetako borondatezko parte-hartzea.

Beste jarduera batzuen helburua da profesionalak herritarrekin jartzea edo egileak ikus-entzuleekin, herritarrek ere prozesu artistikoan parte har dezaten.

Zerikusia du, halaber, artistek gizarte- eta kultura-animazioko eginkizunetik erakusten duten konpromisoarekin; izan ere, nork bere esparru artistikotik, artisten lanak gizabanakoei gaitasuna garatzen eta artean zein kulturaren parte hartze handiagoa izaten lagun diezaieke. Edonola ere, gizarteratzea sustatzen duten faktoreetan ahalegin berezia eginez gero, gizarte- eta kultura-animazioa, jatorrizko zentzuan, kultura-alorreko parte-hartzea indartzeko eta desparekotasuna gainditzeko tresna garrantzitsutzat jo daiteke.

Estatuak halako jarduerari ematen dien balio kultural desberdinari buruzko gogoetak eraginik izan badezake, ekoizpen amateurren esparruan da (dela praktika artistiko edo sorkuntza-jardueren bidez edo dela kultur elkarteetan egindako borondatezko lanaren bidez).

Bere politikaren oinarrian zuzeneko arteen kontsumorako jarduera kulturalen babesa eta sektore pribatuari eman beharreko laguntza daude. Hargatik, ez dago oro har ekoizpen amateurren begirako egitasmo argirik, nahiz eta, bere kanpo-eragin sozial mesedegarriak ikusita, garrantzi handikoa izan.



Esan genezake sarritan kultura-alorreko parte-hartzea kapital kultural ez-dominantearen (non-dominant cultural capital) esparruetan gertatzen dela. Kapital kultural dominantearen eta kapital kultural ez-dominantearen arteko bereizketak honako hau ulertzeko balio digu: gizarteak edo Estatuak balio kulturalik aitortzen ez badiete ere, balio kulturala duten hainbat eta hainbat jarduera dago.

Hala, kultura pobrezia-egoera gainditzeko eta gizarteratzearen aldeko tresna gisa erabili ahal izateko, beharrezkoa da balio kulturala duten jarduerak zabaltzea haien baitan edozein motatako kultura-alorreko parte-hartzeak sar daitezzen eta estrategikoki erabili daitezzen.


## 2.4 Iruzkina praktikoak: jarduera kulturaletan eta bizimodu kulturaletan parte hartzeko oztopoak

Newman et al. (2010) CASE programaren (Kulturari eta kirolari buruzko hainbat erakunde ingelesen baterako ikerketa-programa) esparruan idatzitako "Understanding the drivers of engagement, impact and value in culture and sport" txosten teknikoa, eskaintzen duen argitasunagatik eta sintesi teorikoagatik, balio handiko hurbilketa da.

Pobrezia eta gizarte-bazterketak kultura-alorreko parte-hartzearen prozesuaren zer puntutan (hasi ezjakintasunetik eta parte-hartze aktiboraino) eragiten duten jakiteko balio du lanak. Hartara, errazagoa da une bakoitzerako egokiak diren esku-hartze estrategiak garatzea.

Koadro hauek, eta CASE programaren (2010) txostenetik hartutako grafikoak ere bai, kultura-alorreko parte-hartzearen etapak eta batetik besterako trantsizioan gako diren oztopoak zehazten ditu.

Kategoria	Deskribapena	Trantsiziorako oztopoak
Ezjakitun da (Unaware)	Ez du parte har lezakeen jardueren berri	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sustapenik eza, publizitateagatik edo ahoz ahokoagatik</li> <li>• Heziketa-kanpaina</li> </ul>
Jakitun da (Aware)	Badu horien berri baina ez du parte hartu nahi	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sustapenik eza, publizitateagatik edo ahoz ahokoagatik</li> <li>• Heziketa-kanpaina</li> <li>• Gogobetetzeari buruzko pertzepzioa</li> </ul>
Badu interesa (Interested)	Parte hartu nahiko luke baina oztopo pertsonalen batek ez dio uzten	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez du astirik</li> <li>• Ez du dirurik</li> <li>• Osasun-arrazoia</li> </ul>
Eskari efektiboa (Effective demand)	Parte hartu nahi du baina ez dago eskaintzarik	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaintzari buruzko pertzepzioa</li> </ul>
Parte hartzen du (Engager)	Aktiboki parte hartzen du jardueraren batean.	



Iturria: CASE (2010) lanetik itzulia

Eskema lagungarria da fenomenoaren eta esku-hartzearen ulertzeko garrantzitsuak diren zenbait alderdi nabarmentzeko:

– **Oztopo ekonomikoa** gizabanakoak parte hartu nahi duenean soilik da oztopo. Hala, arazo ekonomikoa baino lehen, interesik eza eta ezjakintasuna daude.

– **Heziketa-faktorearen** garrantzia jakintza, aurretiko jarrera eta interesa sortzeko duen gaitasunean dago; hau da, arazo ekonomikoa baino lehen, heziketaren eragina duen egoera bat dago. Parte ez hartzearen kausak konplexuak izan daitezkeela ulertzeko, pobrezia eta heziketaren arteko korrelazioa gogoratu behar dugu ezinbestean: hainbat mailatako hainbat faktore elkarreraginean. Gauzak zailtzeko, heziketa behin eta berriz garrantzi handiko faktore argigarritzat agertzen zaigu, baina ez dakigu, ordea, zer mekanismoren bitartez erlazioatzen den hori kultura-alarreko parte-hartze handiagoa izatearekin -edo, bederen, kulturaren kontsumo handiagorekin.

– **Interesa** izateko beharrezkoa da jardueraren kulturalerako esperientzia gogobetegarriak izatea. Ulertu behar dugu jardueren gogobetetze-maila desberdina dutela; ikusi behar duguna da ea aztertutako jarduerak edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten jarduerak pobrezia-egoeran dauden gizabanakoentzat gogobetegarriak diren.

– **Gogobetetze pertzepzioari** dagokionez, distantzia sinbolikoa eta jardueraren kultural jakin batean parte-hartzeak izan ditzakeen onurak zein diren ez jakiteak garrantzia du.

Aurrera egin eta fenomenoaren hobeto ulertzeko, kausen konplexutasuna ikusita, estrategia lagungarri bat bizimoduaren kontzeptua baliatzea da. Kasu honetan, **bizimodu kulturalak**.

Soziologian (kontsumoaren soziologian batez ere), bizimoduaren kontzeptua hainbat jokabide azaltzen laguntzen duen ideia da. Bizimodu kulturalak sortzea helburu hartuta, esku-hartzerako kontzeptu gisa ere funtziona dezake.

“Bizimoduak” identitate jakin bat egituratzen duten jarrera, uste eta balioen multzoa dira. Bizitzaren hainbat esparrutako jokabideen bidez adierazten da identitatea.

Hortaz, kultura-alarreko desparekotasuna, dela ekoizpenean dela kontsumoan, bizimoduaren ideiarekin lotuta egon liteke.

Oso hurbilketa interesgarria da, bizimoduak, mekanismo soziologikoen (eragile estrukturalak) ondorio ez ezik, norbanakoaren hautuen emaitza ere badirelako. Kulturaren adierazpide ororen presentzia nabarmena duten eta hartara, aldaketa-efektuaren balioa sortzen duten bizimoduak sustatu behar ditugu.

Bizimodu kulturalen sustapena heziketa bidezko sustapenarekin legoke lotuta. Horrek arazoaren muinari helduko lioke, baina egia da, orobat, halako ekintzen emaitzak epe luzeak direla eta beste alor batzuetan lan egitea ere eskatuko lukeela, hala nola – bereziki-, aisian, errentan eta eskaintzan.

Horren harira esan behar dugu hemen ere, bizimodu kulturalak sustatzeko orduan, beharrezkoa dela kontsumoan eta kultura-alarreko parte-hartzean dagoen heterogeneotasun handia aintzat hartzea. Hau da, bizimodu kulturalak sustatzeko ahaleginek ez dute kultura-adierazpide jakin baten mesedetan jokatu behar.

Bizimodu kulturalak sortzeko orduan, heziketa da gakoa. Bizimodu kulturalak garatzeak esan nahi du gizabanakoak ezagunak dituela zenbait praktika artistiko eta kulturalekin lotutako kodeak. Gai da, beraz, gogobetetze-maila handiagoa lortzeko jarduerekin eta, hartara, bere interesak areagotu eta indartu egiten dira.

Gogoeta honek argi uzten du heziketa faktore garrantzitsua dela baina ez dela nahikoa; izan ere, badira erabakigarriak diren egiturazko edo testuinguruaren araberako zenbait faktore gizabanakoak apenas kontrol ditzakeenak. Bizimodu kulturalen ideia kodeen eta interesaren inguruko jakintza sortzearen garrantziarekin dago lotuta. Ildo beretik, gizarteak jardueraren kultural eta artistiko gehiagori aitortu behar lieke; eta orobat, Estatuak guztiei eman behar lieke babesa.

# 3\_ Pobrezia-aren eta kulturaren egoeraren irudia EAEn

Txosten guztiek behin eta berriro jasotzen dutenez, kontu horiek aztertzeko datu egoki gehiago behar dira. Datu-urritasunak agerian uzten du administrazio publikoek zeinen arreta gutxi eskaini dioten arazoari, nahiz eta, pixkanaka-pixkanaka, akatsa zuzentzeko joera dagoela ikusten den.

Hurbilketa honen bidez hobeto jakin nahi da arazoaren egoera zein den eta horretarako, EAEnko pobrezia-ri eta kulturari buruzko datuetan eta informazioetan oinarritzen da.

Lehendabizi, dagoeneko existitzen diren eta interesgarriak gerta dakizkigukeen datuak bilatu ditugu. Jarraian, lehen urratsa pobrezia-ri eta gizarte-bazterketari buruzko datu isolatuak hautatzea da; bigarren urrats gisa, pobrezia-aren eta gizarte-bazterketaren datuak kultura-alorreko parte-hartzearen datuekin erlazionatzen dira.

Hurbilketa partziala da hau eta xedea datuetan oinarrituta arazoaren garrantzia kuantifikatzea da.

## 3.1 Pobrezia eta gizarte-bazterketa EAEn: ikuspegi orokorra

Jarrian, EAeko gizarte-bazterketari buruzko datu nagusiak azaltzen dira labur-labur Espainiako estatuko datuen aldean. Atal honetan EAeko pobrezia-egoeraren begirada globala eskaini nahi dugu.

Lehenengo taulak pobreziarekin edo gizarte-bazterketarekin zerikusia duten faktoreekin erlazionatutako hainbat adierazle aurkezten ditu (besterik aipatu ezean, datu guztien iturria FOESSA 2014 Txostena da). Hainbat urtetako datu konparatiboak ere hartu dira.

### 3.1.1. Pobreziarekin eta bazterketarekin zerikusia duten faktoreak

HAINBAT ADIERAZLEREN LABURPEN-TAULA URTE ETA LURRALDE ARTEKO DATU KONPARATIBOAK

		EAE	Espainiako estatua
Mendekotasun-tasa	2007	%47,0	%46,8
	2013	%47,0	%46,8
Lortutako ikasketa-maila (2013. urtea)	Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntzako ikasketak Bigarren Hez. ko 1. aldia, eta bidezko lanerako prestakuntza eta laneratzea	%23,1	%26,9
	Bigarren Hez. ko 2. aldia, eta bidezko lanerako prestakuntza eta laneratzea	%20,0	%26,3
	Goi-mailako ikasketak (doktoretzarik gabe)	%20,5	%20,2
		%35,9	%26,0

Atzerritarrak	2007	%10	%4,6
	2013	%11,8	%6,8
Batez besteko errenta pertsona bakoitzeko (EIN)	2008	14.038 €	10.737 €
	2010	14.468 €	11.284 €
	2012	13.857 €	10.795 €
	2014	14.281 €	10.391 €
Langabezia-tasa	2007	%6,2	%8,2
	2013	%16,6	%26,1
Gazteen langabezia-tasa	2007	%17,5	%18,1
	2013	%46,5	%55,5
Landunik gabeko familia-etxeetan bizi diren adingabeak (EUROSTAT eta EUSTAT)	2007	%4,9	%5,3
	2014	%8,7	%13,0
Iraupen luzeko langabezia-tasa	2007	%15,0	%12,3
	2013	%33,8	%36,0

HAINBAT ADIERAZLEREN LABURPEN-TAULA URTE ETA LURRALDE ARTEKO DATU KONPARATIBOAK			
		CA Euskadi	Estado español
Gabezia material larria bizi duten familia-etxeak	2009	%3,4	%4,5
	2012	%4,8	%6,2
Lan-intentsitate urriko familia-etxeak	2009	%5,5	%7,6
	2013	%13,0	%15,7

Adierazleek argi eta garbi erakusten dute krisialdiak hainbat esparrutan eragina izan duela bai Espainiako estatuan bai EAEn. Pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskua orain lehen baino handiagoa dela erakusten dute adierazle batzuek, adibidez, gazteen langabezia-tasak edo iraupen luzeko langabezia-tasak. Hala ere, hautatutako adierazleek erakusten dutenez, EAEko egoera apur bat hobea da.


Lan ordaindua berebiziko garrantzia duen faktorea da gizarteratze/gizarte-bazterketari eta parte-hartze sozialari dagokionez. Hala, adierazleek erakusten dute gaur egun lehen baino arrisku handiagoa dagoela gizarte-bazterketa jasateko, testuinguru ekonomikoak gizarte-ahultasunaren egoerak sorrarazten baititu.

Bazterketa-arriskuak are garrantzi handiagoa hartzen du adingabeak bizi diren familia-etxeetan duen eragina kontuan hartzen dugunean. Familia-etxeekin eta adingabeekin zerikusia duten adierazleek ohartarazten dute beharrezkoa dela aztertzea halako egoerek nola eragiten duten erabat gizarteratuta dauden familia-etxeetako haurren garapenean.

### 3.1.2. Pobrezia eta gizarte-bazterketa

Adierazleek erakusten zuten bezala, gizarte-bazterketaren eta pobrezia-artearen intzidentziak gora egin dute azken urteotan. Adierazle objektibo eta absolutu batekin hasiz, ikusi dugu gabezia material larriak gora egin duela azken urteotan:


1. grafikoa. Gabezia material larria duten pertsonen ehunekoaren bilakaera



Bestalde, pobrezia- eta bazterketa- arriskuaren tasak (ARPE tasa, ingelesezko siglak baliatuz) gora egin du EAEn 2009az geroztik, baina behera egin du, ordea, 2011z geroztik. 2013An, herritarren % 16,8an zegoen, Espainiako baino askoz baxuagoa. Tasa honetan alderdi ekonomiko hutsak (pobrezia erlatiboa, errentan oinarritua) gabezia material larriarekin eta lan-intentsitate urriarekin nahasten dira.




**2. grafikoa.** Pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen ehunekoaren bilakaera (AROPE tasa)



Azkenik, FOESSAk 35 adierazletan oinarriturik garatutako gizarteratze-indizean jarriko dugu arreta, adierazle dimentsioaniztun horrek egoeraren ikuspegi osoagoa eskaintzen baitigu:

EAEko lurralde historikoen arteko konparazioa egitekoa, Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuak erabil daitezke. Adierazle desberdinak erabiltzen ditu eta pobrezia ikuspuntu material eta ekonomikotik soilik begiratzen diote. Haatik, adierazleok EAE barruko ikuspegi konparatiboa eskaintzeko gai dira.


**3. grafikoa.** Gizarteratze-mailaren bilakaera Espainian (2007-2013) eta Euskadin (2013) (%)



Oro har, datuek adierazten dute pobrezia eta gizarte-bazterketaren arazoa nabarmen eragiten duen faktorea dela EAEn. EAEko egoera Espainiako estatukoa baino hobea den arren, horrek ez du esan nahi gizarte-erronka ez denik. Izan ere, EAEko pobrezia eta gizarte-bazterketaren egoera Europako beste herrialde batzuetakoa baino okerragoa da.

Pobrezia eta gizarte-bazterketa egon badaude eta pertsona-kopuru handi batengan eragina duen arazoa da. Beraz, kulturak egoera hori gainditzeko zer egin dezakeen galdetzea erabat zentzuzkoa da.

4. grafikoa. Euskadiko pobrezia eta prekariotasun erreala-egoerak lurralde historikoaren arabera 2008-2014 (%)



Oro har, datuek adierazten dute pobrezia eta gizarte-bazterketaren arazoa nabarmen eragiten duen faktorea dela EAEn. EAeko egoera Espainiako estatukoa baino hobea den arren, horrek ez du esan nahi gizarte-erronka ez denik. Izan ere, EAeko pobrezia eta gizarte-bazterketaren egoera Europako beste herrialde batzuetakoa baino okerragoa da.

Pobrezia eta gizarte-bazterketa egon badaude eta pertsona-kopuru handi batengan eragina duen arazoa da. Beraz, kulturak egoera hori gaitzetzeko zer egin dezakeen galdetzea erabat zentzuzkoa da.

## 3.2 Pobrezia eta kultura-alorreko parte-hartzea EAEn


Atal honetan, datu estatistikoetan oinarrituko gara EAeko kultura-alorreko parte-hartzea nolakoa den aztertzeko. Datuak urrikiak dira eta, beraz, ezin dugu kulturak pobrezia eta gizarte-bazterketa gaitzetzearekin edo areagotzearekin duen erlazioa aztertu. Egin dezakegun gauza bakarra da EAeko kultura-alorreko parte-hartzea ikuspegi orokor batetik aztertu.

Estatistika tradizionalak kulturaren kontsumo-ohituretan (zuzeneko arteak, zinema, bideoa, museoak, etab.) jartzen dute arreta eta ez, ordea, praktika artistiko amateurretan edo kultur elkarteetan egiten den borondatezko lanean.

Hautzarora erabakigarria da kultura-ohiturak garatzeko, eta ikastetxeek berebiziko garrantzia dute eragile sozializatzaile diren heinean. Bigarren mailako sozializazio-guneak dira eta erakunde publikoek horietan esku-hartzeko gaitasuna dute. Ondorioz, politika-mailan, ikastetxeak gune aproposak dira kultura-alorreko parte-hartzearekin zerikusia duten (zuzenean edo zeharka) alderdiak lantzeko.


Azken urteotan jarduera kultural osagarriek behera egin dute. Datua garrantzitsua iruditzen zaigu. Egia da, halere, halako jarduera gehienak kontsumorako izaten direla, hau da, parte-hartze pasiboa eskatzen duten jarduerak direla.

5. grafikoa. Jarduera kultural osagarriak (guztira eta berezita) EAEko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan (guztizkoa bakarrik) 2001-2012 (%)



Grafikoan ikastetxe publikoetako jardueren bereizketa ez ezik, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan guztizkoak ere ematen dira (lerro lodiak). Antzeko balioetatik abiatuta, ikastetxe pribatuetako balioek behera egin duten arren, bertako jarduera kulturalak hein handiagoan mantendu dira.


6. grafikoa. Familia-etxe bakoitzaren batez besteko gastua dantzaldietan, zineman, antzerkietan eta ikuskizunetan 2006-2014 (eurotan)



Gauza bera ikusten dugu lehen mailako eragile sozializatzaile diren familia-etxeetan ere. Jarduera kulturaletan egindako gastuak behera egin du.


Kultura-alorreko enplegua klasearekin, generoarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten lerroek zeharkatzen dutela egia bada ere, kontuan izan behar dugu EAEko kultura-alorreko enplegua (% 2,6 2014an eta % 2,7 2015ean) Espainiako batezbestekoaren azpitik dagoela apur bat (% 3 eta % 2,9 urte berberetan).

7. grafikoa. Kultura-alarreko enplegua ikasketa-mailaren arabera Espainian (2011-2015) (%)



Grafikoak erakusten du kultura-alarreko enpleguak goi-mailako ikasketak dituzten gizabanakoek betetzen dituztela batez ere. Eta gainera, joera hori areagotu egin da (krisiaren ondorioz seguruenik).


8. grafikoa. Kultura-alarreko enplegua sexuaren arabera Espainian (2011-2015) (%)



Halaber, sexuaren araberako banaketak erakusten duenez, halako enplegetan gizonezkoen proportzioa handiagoa da.


Kulturaren Euskal Behatokiak 2007-2008 urtealdian eginiko *Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta* informazio-iturri garrantzitsua da, aldagai sozioekonomikoak eta kultura alorreko parte-hartzearen aldagaiak batzeko aukera ematen duelako. Kultura-alarreko parte-hartzearen hainbat aldagai aztertzeko, diru-sarreraren eta ikasketa-mailaren aldagaiak hautatu dira. Kontuan izan behar dugu hain justu inkestako “9.000 €-tik behera” eta “Ikasketarik gabe” aldagaien kategoriapean sartzen diren gizabanako gehienek 64 urtetik gora dutela.

9. grafikoa. Arte eszenikoen ikuskizun gehiagotara joateko interesa diru-sarreraren arabera 2007-2008 (%)



Diru-sarreraren aldagaia gabezia materialaren adierazle argia da; ikasketa-mailak, aldiz, gabezia materialarekin eta gizarte-bazterketarekin du zerikusia. Kultura-alorreko parte-hartzea azaltzeko gehien erabiltzen den eta garrantzia handien erakusten duen aldagaietako bat da gainera.


10. grafikoa. Arte eszenikoen ikuskizun gehiagotara joateko interesa ikasketa-mailaren arabera 2007-2008 (%)




Argi eta garbi, arte eszenikoekiko interesa korrelazioan dago diru-sarrerekin eta ikasketa-mailarekin. Hala, baliabide urriagoak eta hezkuntza formalean prestakuntza txikiagoa duten pertsonen interes txikiagoa erakusten dute. Aldiz, baliabide ugari eta goi-mailako hezkuntza-tituluak dituztenen artean, oso gutxi dira interesik ez dutenak.

Gainera, ondorengo grafikoei interesik ez dutela dioten pertsonen emandako arrazoiak zein diren jakiteko aukera ematen digute. Arrazoi ekonomikoak zer nolako garrantzia duen ikusteko da batez ere interesgarria.

11. grafikoa. 9.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten herritarrek arte eszenikoen ekitaldi gehiagotara ez joateko emandako arrazoiak 2007-2008 (%)



**12. grafikoa.** 27.000-54.000 €-ko diru-sarrerak dituzten herritarrek arte eszenikoaren ekitaldi gehiagotara ez joateko emandako arrazoiak 2007-2008 (%)




9.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten arten, kostu ekonomikoa da arte eszenikoaren ekitaldi gehiagotara ez joateko arrazoi nagusia. 27.000-54.000 €-ko diru-sarrerak dituztenen artean, aldiz, kostu ekonomikoa hirugarren postuan dago<sup>2</sup>. Azken hauentzat arrazoi nagusia astirik eza da eta horren atzetik, eskaintza urritasuna (eta ondorioz, ezin dute ekitaldi gehiagotara joan).

Nabarmendu behar dugu, halaber, askoz garrantzi txikiagoa duten arren, gizabanako pobreenen artean, distantziaren arrazoiak eta gustuarekin bat ez datorren eskaintza desagokiaren arrazoiak indar handiagoa duela. Segmentu honentop 5 zerrendan, eskaintza urritasunaren arrazoiak azken postuan dago.


Kultur ekoizpenaren alorrean (idatzi, abesbatzaren batean abestu, musika-tresnak jo, argazkiak edo bideoak egin, arte plastikoak, dantza) gizabanakoaren parte-hartze aktiboa zenbaterainokoa den jakiteko galderak ere jasotzen ditu ohiturei buruzko inkestak.

Bada aldagai bat boluntariotza kulturalari buruzkoa eta beste bat jardueraren batean egiten den praktika amateurrari buruzkoa. Kultura-alorreko parte-hartzearen diru-sarrerak (eta hezkuntzak) zer nolako eragina duten sakonago aztertzeke aukera ematen digu horrek.

**13. grafikoa.** Jarduera artistikoen praktika amateurraren eta kultur elkarteren baten baitako parte-hartze aktiboaren diru-sarreraren arabera 2007-2008 (%)



**14. grafikoa.** Jarduera artistikoen praktika amateurraren eta kultur elkarteren baten baitako parte-hartze aktiboaren ikasketen mailaren arabera 2007-2008 (%)




<sup>2</sup> "54.000 €-tik gora" kategoriaren ordez, kategoria hau hartzea erabaki dugu kategoria honetan kasu gehiago dagoelako eta, beraz, emaitza lerratuak emateko arrisku txikiagoa eskaintzen duelako.

Bi aldagaiak nabarmen daude erlazioan: jarduera artistikoren baten praktika amateurrarekin. Boluntariora kulturalean ez dago diru-sarreraren arabera desberdintasunik. Halaber, ikasketarik gabeko gizabanakoak oinarri hartua (% 7), unibertsitateko ikasketak dituztenek bi aldiz gehiago hartzen dute parte (% 15).


Praktika amateurra adin-tartearen arabera banatuta, zaharrenek dute gutxiena parte hartzen kultur ekoizpenean. Hala, jarduera artistiko amateurrak egiteagatik gizabanakoaren gizarteratze-maila hobetzeko aukerak handiagoak dira zahartzaroan.

Gizabanakoek hein handiagoan hartzen duten parte praktika artistikoetan kultur elkarteetan baino. Haatik, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Kultura Ohiturei eta Praktikei buruzko Inkestaren datuek erakusten dute 2014-2015ean parte-hartze mailak apur bat gora egin duela (kontuan izan behar dugu bi unetan eta galdera desberdinak baliatuz egindako bi inkestaren datuak alderatzen ari garela eta horregatik, datuen irakurketa kontu handiz egin behar dela).

**15. grafikoa.** Praktika artistiko amateurren bat egin duten biztanleak EAEn adin-tartearen arabera 2007-2008 (%)



**16. grafikoa.** Kultur elkarteetan parte hartzen duten biztanleak EAEn 2014-2015 (%)



Aztertutako datuek lan honen helburuak kontuan hartuta interesgarriak izan daitezkeen zenbait ohar egiteko aukera ematen dute kultura-alorreko parte-hartzeari buruz:

- Krisialdiaren ondorioz, familia-etxeek kulturaren egindako gastua nabarmen gutxitu da eta kultur elkarten baitako parte-hartzeak, aldiz, apur bat egin du gora. Familia-etxeen gastua datu garrantzitsua da, familiari baitagokio lehen mailako sozializazioa.
- Ikastetxe publikoek, proportzioan, gehiago murriztu dituzte jarduera kultural osagarriak gainerako jarduera motak baino. Datu hori garrantzitsua da, eskolak zeresan handia baitu bigarren mailako sozializazioan.
- Espainiako estatu-mailako datuek adierazten dutenez, kultura-alorreko enpleguak unibertsitateko ikasketak dituztenek betetzen dituzte batez ere. Beraz, baliteke kultur ekoizpen profesionalerako sarbidea parekidea ez izatea.
- Arrazoi ekonomikoa garrantzi handikoa da kultura-alorreko parte-hartzea ulertzeko, baina ez da bakarra eta segur aski, ezta erabakigarria ere.
- Ebidentziak adierazten du diru-sarrerak hezkuntzarekin zerikusia duela eta hezkuntzaren aldagaia, aldi berean, kultura-alorreko parte-hartzea azaltzeko faktore garrantzitsua da.
- Gogoan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzaren ohiturei buruzko inkestan, Diru-sarrerak eta Ikasketak mailaren aldagaietako “9.000 €-tik behera” eta “Ikasketarik gabe” kategorietan 64 urtetik gorako pertsonak sartzen direla batez ere. Horrek aditzera ematen digu adina (kasu honetan, adineko jendea) gizarte-bazterketaren profilekin zerikusia duen faktorea dela.
- Diru-sarrerak eta hezkuntza gakoak dira kultura-alorreko parte-hartzearen eta gizarte-bazterketan duten zeresanagatik.
- Segmentu pobreek eta hezkuntza formalean maila txikiagoa duten segmentuek interes txikiagoa erakusten dute kulturaren kontsumoarekiko eta jarduera artistikoen praktiketikiko. Kultur elkarteetan parte hartzeari dagokionez, ez dago arrazoi ekonomikoaren arabera desberdintasunik; gizabanakoaren ikasketak-mailak, ordea, badu horretan zeresanik.

## 4 Laburpena

Lan honetan, kultura-alarreko parte-hartzea gizarte-despreekotasuna gaintzeko edo iraunarazteko faktore gisa nola uler daitekeen aztertzea bideratu dugu arreta. Zehatzago esanda, kultura-alarreko parte-hartzea pobrezia-egoerak gaintzeko akuilua da.

Lehen urratsa pobrezia-artearen kontzeptua ulertzea izan da. Horrek gizarte-bazterketaren dimentsio anitzeko kontzeptua kontuan hartzea eraman gaitu eta jakin dugu, hala, kultura-alarreko parte-hartzeak gizarte-bazterketan eragin dezakeela modurik zuzenenean eta eraginkorrean.

kultura-alarreko parte-hartzea integratzailea da, aldaketa-efektua lortzeko ahalmena duelako. Kultura gizartearen eraldatzeko tresna gisa ulertzeak hiri- eta gizarte-politikak diseinatzeko bidea ematen du. Tokian-tokian proiektuak sistematizatzea beharrezkoa da. Horretarako, ezinbestekoa da goragoko mailetatik babesa jasotzea. Goragoko mailetak erakundearen parte-hartzeak kulturak gizarte-despreekotasuna gaintzeko ahalmena aitortu eta sustatu behar du. Hala ere, ezin dugu ahaztu pobrezia arazo material eta ekonomikoa dela nagusiki, eta arrazoi estruktural sendoak dituela.

Hiriguneetan egiten diren proiektuek sormena eta heterogeneotasuna dituzte ezaugarri nagusi. Haatik, nolabaiteko homogeneizazio-mailarik balego, aldaketa-balioa ebaluatzea eta ikusgarri bihurtzea ahalbidetuko luketen baterako irizpideak eskuratzearen alde jokatu luke.

Datuek erakutsi dute, alde batetik, EAEn pobrezia eta gizarte-bazterketa egon badagoela eta bestetik, kultura-alarreko parte-hartzean eragina dutela. Hala ere, kulturaren eta despreekotasunaren erlazioari buruzko berriak datuak beharko genituzke horren aurrean nola jokatu erabakitzeke.

Hala, kultura-alarreko parte-hartzeak, esparru teorikoan nabarmendu dugunez, erlazioa izan dezake beste esparru batzuekin, hezkuntzarekin adibidez; izan ere, hezkuntza, diru-sarrerekin zerikusia duen elementua izateaz gain, gakoa da kultura-ohiturak azaltzeko orduan.

Horiek horrela, etorkizunari begira, hiru norabidetan doazen zenbait orientabide adierazi nahi dugu:

a) Lehenengo lan-ildoak kultura baloratzeko bideak zabaltzeko mekanismoekin du zerikusia. Horren haritik, ondo legoke kulturak aldaketa-efektua sortzeko duen balioa ebaluatzea eta jarraipena egiteko datuak eskaintzen dituzten mekanismoak garatzea. Halaber, politika eta proiektu kulturalak gizarte-despreekotasunaren ikuspuntutik oso garrantzitsuak direla ohartaraztea ere interesgarria izango litzateke.



b) Egindako lanari esker, ikusi dugu kultura-alarreko parte-hartzea sustatzeko eta hartara, pobrezia eta gizarte-bazterketa egoerak gainditzeko lan-lerroak zein izan daitezkeen:

- Gidalerro garrantzitsuetako bat da pobrezia ikuspegi espazialek aztertzea eta ekipamendu zein baliabide kulturalen lurralde-mailako planifikazio estrategikoa egitea.
- Hurbiltasuna, maila geografikoan ez ezik, gizarte-mailan ere landu behar den elementua da. Gizarte- eta kultura-animazioaren teknikak pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden gizabanakoek kultura-alarreko parte-hartze handiagoa izan dezaten erabil daitezke eta erabili behar dira.
- Egoera ekonomiko latzenez dauden gizabanakoen artean, kultur ekoizpen amateurra egiteko gogoia piztea estrategia aproposa izan daiteke kultur ekoizpen profesionalerako sarbidea bidezkoagoa izan dadin.
- Edonola ere, beharrezkoak dira kultura-alarreko enplegurako sarbide bidezkoagoak lortzeko eta lan-alarreko bereizketak ekiditeko politikak.
- Beste lan-lerroetako bat edozein jarduera kultural motak aldaketa sortzeko balioa izan dezakeela onartzearekin eta balio hori sustatzearekin dago lotuta. Kapital kultural dominantearen eta ez-dominantearen ildotik, “kapital kultural ez-dominantearen” ideia zalantzan jarri behar dugu eta hala, jarduera kultural orori aldaketa-efektua sortzeko duen balioa aitortu behar diogu.

c) Hezkuntzak korrelazio handia du kultura-alarreko parte-hartzearekin (diru-sarrerak baino handiagoa) eta beraz, hainbat ohar egitea komeni da:

- Ikastetxeetan kultura-alarreko parte-hartzea sustatzeko egitasmoak prestatu beharko lirateke.
- Ikaskuntzari bidea ematen dioten inguruneak (eta haurrentzat adierazgarriak direnak) sortu behar dira etxetik kanpo.
- Haurtzaroaren eta gaztaroaren sozializazio-aldiaren garrantzia ikusita eta familiak eragile sozializatzaile gisa duen garrantzia ikusita, zentzuzkoa da gurasoen hezkuntza (eta orobat, euren buruarekiko eta seme-alabekiko hezkuntza-helburuak eta itxaropenak) hobetzeko programak sortzea. Garrantzitsua da, halaber, diru-sarrerak hobetzea, kulturaren kontsumoa oztopatzen duen mugetako bat desagerrarazteko modua baita.

# 5\_ Aipatutako erreferentziak

Brien, Dave O. and Prof Kate Oakley. 2015. "Cultural Value and Inequality: A Critical Literature Review." A Report commissioned by the Arts and Humanities Research Council's Cultural Value Project 28. Retrieved (<http://www.ahrc.ac.uk/documents/project-reports-and-reviews/cultural-value-and-inequality-a-critical-literature-review/>).

Comisión Europea. 2005. "The Role of Culture in Preventing and Reducing Poverty and Social Exclusion." (Policy Studies Findings. Community Action Programme on Social Exclusion).

Fundación FOESSA. 2014. Informe Sobre Exclusión Y Desarrollo Social En El País Vasco. [http://www.caritasbi.org/cas/variados/informes/Informe\\_FOESSA\\_Pais\\_Vasco\\_29-10-2014.pdf](http://www.caritasbi.org/cas/variados/informes/Informe_FOESSA_Pais_Vasco_29-10-2014.pdf)

Gubbins, Michael. 2016. Building Bridges. Diversity in European Film.

Matarasso, François. 1997. "Use or Ornament?" Comedia.

Newman, Mark et al. 2010. Understanding the Impact of Engagement in Culture and Sport. Retrieved (<http://www.culture.gov.uk/images/research/CASE-systematic-review-July10.pdf>).

Roberta Woods, Lynn Dobbs, Christopher Gordon, Craig Moore, Glen Simpson. 2004. "Report of a Thematic Study Using Transnational Comparisons to Analyse and Identify Cultural Policies and Programmes That Contribute to Preventing and Reducing Poverty and Social Exclusion." 1–231.

UNESCO. 2014. Indicadores UNESCO de Cultura Para El Desarrollo. Manual Metodológico. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. Retrieved (<http://www.unesco.org/creativity/cdis>).



# Kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioaren inguruan **\_2016**



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA